

EKKO EGITASMOA

ESKOLA-KOMUNITATEA-KIROLA-OSASUNA

AURREKARIAK

Arrasaten DBHko ikasleekin azken 4 urteetan adikzioen prebentzioan egindako lanketatik, agerian geratu dira nerabeen artean ematen diren hainbat zailtasun, hala nola, erabakiak hartzea ondorioak kontuan hartu gabe, komunikatzeko, talde presioari aurre egiteko edota frustrazioa kudeatzeko zailtasunak. Eta honek azaleratu du gizarte trebetasunak aurre nerabeekin lantzeko dagoen beharra.

Horri erantzun nahian sortu da EKKO (Eskola-Kirola-Komunitatea-Osasuna) egitasmoa, aurre nerabeen gizarte trebetasunetan eta garapen psikologiko, sozio-afektibo eta komunikatiboan eragin nahi duena.

XEDEA

Aurre nerabeengan gizarte trebetasunak sustatzeko esku hartze komunitarioko proiektu hezitzailea aurrera eramatea.

Eta horretarako, aldez aurreko urrats gisa, aisialdi, kirol, hezkuntza eta kultur eremuko eragileak trebatzea, hurrekin gizarte trebetasunak lantzeko dinamizazio estrategietan.

HELBURUAK

Ikasleekin

- Baliabide eraginkorrak eskaintzea aurre nerabeei, eguneroko bizitzan aurkituko dituzten zailtasun eta arrisku egoerei aurre egiteko.
- Espazioak sortzea aurre nerabeak gizarte trebetasunetan trebatzeko, jokabide osasungarriak aukera ditzaten.
- Erabakiak askatasunez eta arduraz hartzen laguntzea.

Gurasoekin

- Gurasoei eskaintzea hurrekin batera gizarte trebetasunen inguruan hausnartzeko une bat.

Komunitate mailan

- Komunitatean aurre nerabeentzako gertuko erreferente positiboak indartzea, begirale eta hezitzaileak trebatuz:
 - Haurren ezaugarri psikologiko eta sozio-afektiboak ezagutzea.
 - Harreman eta komunikazio estrategien gaineko ezagutzak jasotzea.
- Komunitatea inplikatzeko, haur eta nerabeengan ohitura eta jarrera osasungarriak bultzatzeko eta bizikidetzak sustatzeko.
- Heziketa formala eta ez formalaren arteko zubi sendoa eraikitzea.

1. Dinamizatzaileak prestatzea

EKKO proiektua garatu ahal izateko, lehenengo trebatu behar dira dinamizatzaile arituko diren langileak. Hauek izango dira Arrasateko udalerrian aisialdi, kirol, hezkuntza eta kultur eremuan haur edota nerabeekin lanean diharduten pertsonak.

Udalak “Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio estrategietan espezializazio ikastaroa” burutzeko diru laguntzak emango ditu, 9 pertsonarentzat. Deialdi honetan baloratuko da hautagaien ikasketak eta esperientzia tokiko aisialdiaren, kirolaren, hezkuntzaren eta kulturaren arloetan.

2. 2024/25 ikasturtean proiektua garatzea

2023/24 ikasturtean proiektuan parte hartu duten hezitzaileekin eta orain trebatuko diren pertsona berriekin dinamizatzaileen lantaldea osatuko da. Bi ikasturteko programa bat da, LHko 5. eta 6. mailan garatzekoa eta guztira 46 lan saio egingo dira ikas maila bi horietan, horrela banatuta:

- 40 saio burutuko dira hurrekin, 20 saio ikas mailako, eskola orduetan, ikastetxean.
- 6 saio haur eta gurasoak elkarrekin, 3 saio ikasturteko, eskola ordutegitik kanpo, Gaztelekuan.

EKKO programa, beraz, neska-mutilekin zein gurasoekin landuko da. Bost moduluk osatzen dute programa:

- Autoestimua-autokontzeptua
- Komunikazioa
- Erabakiak hartzea
- Arazoak konpontzea
- Pertsona arteko interakzioa

Ikasgela bateko ardura duen dinamizatzaileak 125 orduko lan dedikazioa izango du guztira ikasturtean, ikasleen eta gurasoen saioak dinamizatzeke, prestakuntzarako eta koordinaziorako.